



ESPERIMENTUA: ZER MOTATAKO PAPEREZ EGINDAKO LOREAK IREKITZEN DIRA AZKARREN?

Erabiltzen duzun paper-motak aldatzen al du paperezko lore bat irekitzeko abiadura?

SAIATU ASMATZEN: Zure ustez, zer motatako paperez egindako loreak irekiko dira azkarren?

PAPEREZKO LORE TOLESTUAK EGITEKO JARRAIBIDEAK

1. Marraztu lore handi bat, petaloduna, kartoi mehean edo kartoian, ebaki, eta erabili txantiloia gisa (txantiloia esperimentuan erabil dezakezu, bukatu ondoren!).
2. Erabili zure txantiloia mota desberdinetako paperetan marrazteko.
3. Tolestu petalo bat aldi bakoitzeko, denak tolestuta gelditu arte, goiko irudian bezala.
4. Jarri petalo tolestuak uretan, eta begiratu nola destolesten diren!

ESPERIMENTUA EGITEAN KONTUAN IZAN BEHARREKOAK

Gogoratu aldatu behar duzun gauza bakarra paper-mota dela. Gainerako gauza guztiak berdin mantendu behar dira!

- Tamaina bereko loreak erabili behar dituzu aldi oro, eta era berean tolestu behar dituzu.
- Zer motatako paperak erabiliko dituzu (adibidez, ordenagailurako papera, eskulanetarako papera, kartoi mehea, paper ezkoztatua, sukaldeko papera, egunkaria)?
- Zenbat aldiz egingo duzu proba paperezko lore mota bakoitzarekin?

DATUAK

- Nola neurtuko duzu zenbat denbora behar duten paperezko loreek irekitzeko?

ZER IKASI DUZU ESPERIMENTU HONETATIK? ZER GERTATU DA? ZERGATIK USTE DUZU GERTATU DELA?

Bizitza errealean...

EGIAZKO LOREAK IREKI EGITEN DIRA LANDAREEK URA PETALOETARA ERAMATEN DUTENEAN! LANDAREEK AZKAR ERAMAN DEZAKETE URA BEREN ATALETARA, HALA NOLA PETALOETARA EDO HOSTOETARA. URA AZKARREN IBILARAZTEKO GAI DEN PAPERAK ZABALARAZIKO DITU AZKARREN LOREAK.

ARGIZKAK (5 URTE) PAPER EZKOZTATUA, ORIGAMI-PAPERA, ESKULANETARAKO PAPERA ETA KARTOI MEHEA ERABILI ZITUEN LOREAK EGITEKO. IKUSI ZUEN ESKULANETARAKO PAPERAZ EGINDAKO LOREAK IREKI ZIRELA AZKARREN.

